

gaurkoan

Joxe A. Arrieta Ugartetxea (*)

Letrakit dela eta

Alfabetagintzaren Nazioarteko Urtearen kariaz, joan den asteburian inauguratu zen Baionan, UNESCO eta Euskaltzaindiaren babespean, Eusko Jaurrlaritzaren Kultura Sailak eta Hegoaldeko Diputazioek finantzatzen duten **Letrakit** kanpaina. Berrehun bat milioitako aurrekontua omen dauka, eta honako bi helburuok, antolazaillean beraien hitzetan:

«... **Letrakit** egitasmoaren lehen helburua da hain zuzen, datu guztiak biltzeaz batera azterketa sakon bat egitea, 1960-1990.eko **Euskal Herriko alfabetazearen historia** burutu ahal izateko».

(...)
«Lehenago aipaturiko ikerketa-lan ez gain, **Letrakit** delakoaren helburua da, euskal literaturak eta euskara idatzialak euskal gizaitean **ospe-maila garrantzitsua** lor dezaten. 1990-91 ikasturtean zehar ekintza desberdinak antolatzeko. Euskal gizaitean, gaur egun, alfabetatze-lanak norabide horretan joan behar duela uste dugu, **oinarrizko alfabetatzea (irakurritzen eta idazten jakitea) betetik bait dago**. Baina bestalde, euskara idatzia, gaur, gutxiatan erabiltzen da oraindik ere. Hau dela eta, kanpaina honen helburutzat hartzen da **euskara idatzia irudia (imajina) hobetzea**. (Azipimarrak nireak dira)

Hurbilketa kritikoa

Zilegi bezain beharrezkoa zaigu euskaldunoi herritar gehienzat oraindik ere ia guztiz ez-ezaguna den gure kultur ondare idatzia ezagutaraztea. Euskaldunon euskal literaturarekiko motibapena eta eraldunengan gutxienez begirunea sustatzea oso ondo dago. Eta Euskal Herriko herrialde guztietan barrera egiten bada, hainbat hobe. Itxaropena badaukar gainera, ikerketarako beka horien arimoon —13 milioi eta laurden— gure Alfabetazearen argi-ihunak hobeto ezagutzen lagunduko diguten lan itxurosoak egingo direla. Baina zalantza ere bai, hainbesteko diruztari zor litzaiokeen adinako etekina lortuko ote den, «lehoiaren parte» Eraskusketa Ibiltariari izendatu zaiola ikusirik.

Ba dira, batik bat, betoskoa zimur-erazten didaten gogoetak. Bata, **Letrakit** honetan somatu usie dudun funtsezko zenbait ahulezia, eta bestea, irain konparatiboen testuinguru orokorra deituko nukeena. Ahuleziak nagokiela, euskarari buruzko diskurtso ofizialak hain ohiturik gauzak triumfalismo-kutsua aipatuko nuke lehen-lehenik. Mintzatzeko-mailan

bertan ere %8,27 besterik erabiltzen ez den hizkuntza izanik gurea, euskaldunok —eskolatuak zein ez, «praktikanteak» zein ez— eguneroko hizkuntz eskizofrenia larrian eraldun elebkarrez osaturiko gizarte-gehiengoaren esanetara elkar-bizitzen ari garen egoera soziolinguistiko artxi-minorizatu honetan, nola baieztatu daiteke «oinarrizko alfabetatzea... besterik dagoela? Premisa horretatik abiatuz gero, ez da harritzekoa kanpaina honen eragileek hainbat puntu guztiz erabiltzeko planteatu ere ez izana. Galdera-andana bezala adieraziko dut: Zein talde soziolinguistikori zuzendua da **Letrakit**? «Gizarte osoari», besterik gabe? Aski al da honelako gai batean «haurrak-gazteak-helduak» gisako bereizketa primarioa egitea eta kitto?

Zein haur, zein gazte, zein heldu-talde? Zein komunikazio-estrategia ezberdin diseinatu da talde soziolinguistiko bakoitzarengana (8 dira gure artean!) mezu helarazteko? Euskara idatzia «irudia» ala «itxura»? Bitarteko audiobisualak erabiltzea ongi dago baina, bitartekoak bitarteko, zein da helburua? Euskal idazleok «ospe-maila garrantzitsua» lortzea, bakarrik? Mila esker, gure «ego»-en puzturari dagokionaren aldetik, baina... zertarako balio du horrek, jendeak euskaraz irakurri nahi eta ahal dezan azpiegitu sendoak eraikitzen ez badira?...

Eta hona hemen irain konparatiboen zerean buru-belarri sarturik. Galderekin jarraituz. Nola uler daiteke Administrazioak honako irudi-kanpaina batean dirua barra-barra eragiltzea eta, aldi berean, askoz ere arnasa luzeagoko egitasmo batzuri —«Egunkaria Sortzen», bai — xentimo bat bera ere ukatzea? Edota famili bidezko transmisioaren beste kanpaina tume (bi milioi) 'erdiko aurrekontua bakarrik!) baina interesgarri horri. Zer gertatzen da hemen? Zeintzu dira agintari autonomiko jeltikende «designio inexcusable»-ak? (eta barka erdarakada, nahiz eta suposatzen den, idazle naizenez gero, aspaldi egina behar nukeela «oinarrizko alfabetatzea»). Baina, benetan, hain igertezinak al dira erizpide horiek?

Irakurketa politikoa, ezinbestean

Ez. Berriro arrazoi politikokoak nagusitu dira, euskal hizkuntz komunitatearen batasun eta trinkotasunaren aldeko jarrerren gain. Tokitan dago, oraindik, Txepetek hain egoki

laburbiltzen duen helburu hil-ala-bizizko hori: «subordinación del poder político al objetivo de compactación lingüística». Irakurleak juzka beza, ahalik eta telegrafikoan ematen saiatuko naizen informazio hau ere, arren, kontutan harturik. Ez omen zen beste **Bateginik** bat egin rahi, alderdien arteko plataforma-rik-eta ez, dena *persona* eta *talde* euskaltzaleen esku. Konforme, izan zen gure erantzuna, baldin eta batasun-izpirtu hori talde euskaltzale guztienaganaino zabaltzen bazen, eta konkretuki, EKB eta AEKrekin ere hitz egiten bazuten. Akabo harremanak, ofizialki bederen. Extraofizialki, zenbit mezu «bitxi», gerotzik: AEK «gure» (HBren) arazoa omen dela, EKB ere berdintu («astirik izan duzue EKBko jendea izendatzeko», etab.). Amarru trauksilegiak. Ondotxo ekiten HBk inola ere ezin onar zezakeela horrelako lardaskeriarik. Garbi dago hasieratik bertatik ez zutela gurekin ezertxo ere nahi, batasun-itxurazko dibertisio-manioira pare bat antzestu arren. Antolazaillean atetik dagokeen indar politikokoekin zuzenean hitzegin nahi genuelako gure eskarari ere uko. Eta gaur arte. Hori bai, arkezpen-ekitaldi eta afaritarako gonbite-txartelak hutsik gabe jaso ditut gerotzik nik neuk behintzat, non?, etxean? lantokian?... ez, HBren egoitzan. Lapsus freudiano polita alderdi politikoei harremanik nahi omen ez zutenen aldetik.

Azken batean, EAJK EAJren irudi euskaltzalea hobetzeko prestatu duen kanpaina bat dugu honako hau. Bide batez, eta helburu nagusi gisa, HB jokoz kanpo utzi nahirik. Ez da kasualitatea Arregi Sailburua erabiltzen ari den hizkera desafiata batetik —gu «intransigente antidemokratiko»-ok etengabe xaxatuz—, eta hizkera mimetikoa bestetik —zenbaitetan EKBren txostenen batetik maitatuko direla diruditen esaldiak erabiliz, hala nola honako perla hau: «herri-mugimenduak ez du zertan erakundeen kontra egon beharrik, eta hau da elkar-lana posible dela frogatzen duen ekintza bat». Oso ondo, berandu bada ere, noizbat kontraturatu dituk, esan genezake ironia apur batez. Baina ez, ez dira bat ere tontoak. Ondotxo dakite herri-mobilizapen zabal eta sendo bat kontrolatzina zaiela, baina beraiek dosi txikitari banatu eta inokultatu gero, txerto immunizagarria ere gerta dakiekeela. Autodeterminazioarean bezalatsu. Gainera, bertan ditugu hauteskun-

deak eta, koartada gisa erabil badezakete ere oraindik kanpaina ez dela hiru-probintziotara etorri, hor daude komunikabideak, ezta? Zer etekingarriagorik prentsa eta telebista bidez hauteslego baskongado euskaltzalei beraiek «Euskadi irredenta»-n barrera mixiolaritzan dabilatzalako *irudia* transmititzea baino?... Oxienea baino premiazkoagoa zaie horrelako efektu-kolpe bat. Aspaldidanik herrestan daktaren defizit euskaltzalea berdintzeko. Euskararen normalizazio-politikan porrot egiten ari bait dira, berez eta, zer esanik ez. PSOEren eskakizun panhispanikoei amore eman beharraren ondorioz. Alor asko aipa litezke, baina bat bakarrik errepikatuko dut, ezin adierazgarriagoa: «Egunkaria Sortzen». Kostu handia suposatzen ari zaio EAJri (eta bste batzuri) azken urteotan Euskal Herriaren sortu den mugimendu euskaltzale beharbada eraginkorren honen aurkako borroka itsusia, edozein euskaltzaleren begi lausotu gabeen aurrean zinez inpresentablea eta eskandalagarria. Panorama honen erdian, ez da harritzekoa plazako kioskorako bonbo eta plaitilo guztiak eramatea, ohiturik gauzkatzen pasodobleen durandak ibiribilketa martxoso baten akordeekin ezitzi nahirik. Baina ez gara gorrak, ez zentzu hertsian, ezta metaforikoan ere.

Zer egin? Nire ustez, aurreneko gauza, tranpan ez erori. Lasai. Harreman diruz egindako herriarena, herri osoarena, da. Akats nabarmenak ditu LETRAKIT honek, ez dago euskararen kontsentsu orokorrean oinarritua, euskalgintzarentzat askoz ere garrantzitsua diren beste ekimenekiko irain konparatiboen miragarria da. baina hala ere euskal kulturaren atal bat ezagutarazteko balio dezake, neurri axalago zein sakonxeagoan. Aurrera, beraz. Enbidoari eutsi eta hordagoa ez ahaztu inoiz ere euskarak berak irabazi behar duela, ez «haiek» edo «guk». Gogora datorrik Arzalluz jaunak igaz, Argelgo Mahaia hausteko bere alea ekarriz, bota zuen «boutade» lotsagarri hura: «por la paz un avemaria, pero no el rosario entero». Nik neuk, orain, bakeari buruz hark esandakoari alderantzizko eman eta euskarari ere egokituz, hauxe esango nuke, bihotzaren eta burmuinaren erditik: «bakea-erengatik ezezik, euskarerengatik ere errosario osoa, eta behar diren letania guztiak».

Idazlea. HBren Mahai Nazionalekoa

hemeroteca

Hacer el ridículo

(Amatiño, «Deia», 22-9-90)

No faltaron ayer comentarios irónicos sobre el ridículo de Xabier Albistur ante la imposibilidad de cruzar unas pocas frases en inglés con la actriz Cyd Charisse. Los idiomas no son, por lo visto, el fuerte del alcalde donostiarra... El director del Festival de Cine, Pello Aldazabal, tiene los mismos problemas... Menuda representación para una ciudad que se pretende capital cultural y turística de Euzkadi.

Va siendo hora de que todo aquel que aspire a alguna proyección pública en Euzkadi se preocupe de su conocimiento del euzkera, y que quien desee una mínima proyección internacional aprenda a hablar inglés... (...)

Los israelitas saben hebreo porque es su lengua nacional, el inglés porque es internacional y el árabe porque es la lengua del enemigo. Nosotros, mientras

tanto, somos unos españoles. Basta ver el nivel de exigencia de euzkera e inglés en los exámenes de Selectividad para comprender que nuestro futuro es seguir haciendo el ridículo.

Rosa Conde

(«El Independiente», 22-9-90)

La ministra portavoz del Gobierno, doña Rosa Conde, ha tomado el carné del PSOE como los hábitos de un convento. Esta encantadora señora, despistada y balbuceante, todavía no conoce su función. Confunde la interpretación de los hechos con la de los sueños... Llevamos los periodistas, (...), mucho tiempo esperando un rayo de luz y de sentido común en el Gobierno. Y cuando vemos en boca de los ministros denuncias contra la corrupción, el oportunismo de izquierdas, la demagogia y la escasez de democracia interna en el PSOE, calificada de monolitismo, nos dicen que nos hemos inventado la realidad. (...)

zelatan

UPV.tik deika

Gure «Universidad del País Vasco» UPV.an dagoen kinka larria, eta normal xamarra denez, ez da kanpotik somaten. Artikulu mamitsu batzu agertu dira jadanik EGIN honetxe orrialdeetan. Baina herri zabala ez da kakaok jabetzen.

Liskarraren ondorioak, halere, oso garrantzitsuak izan daitezke: bai langileen eskubideei dago-kienez (eta Unibertsitateari ari garenok langileak gara), eta bai izen hori mereziko lukeén *Euskal Unibertsitate*-ren lorpenaren aldetik.

Benetako Euskal Unibertsitatearen alde urte askotan, eta irakurleak ongi dakienez, jo-ta-ke saiatu ondoren, Barberá eta Recalde (edo-ta, Recalde eta Barberá) euskaldun, euskaltzale eta abertzale finek, beste aurrerapausu bat egitea erabaki dute: 526 irakaste kale gorriari utzi; eta, berriro

ere, «hunilaren legea» aplikatzea. Alegia: espainiar funtzionarioaren sistema onartu, ala kanpora.

Irakasleen artean beldur gaitza dagoenez (irakasleentzatik al zer lan aurki dezake gaur Lizentziadun edo Doktore batek?), mechatxu-pendek «ulertuko» dutela espero du Recalde-Barberá bikote maitatuak. Eta Irailko azken egun hauetan denek ez beharbada, baina irakasle askok, etsirik, «reintertzioa» hautatuko duela uste dute.

Recalde-Barberá badakite, jakina, irakasle mordo batek, langile-kontratoaren gudaketa luzea irabazi ondoren, ez duela amore emango. Eta horietxek direla gaur arte UPVaren barruan helburu euskaldunak, abertzale herrikoiak eta helburu abertzaleak defendituko dituzten pertsonak.

Recalde-Barberá bikote miresgarriak, horretara, lotsagabeki jo-

katzea hautatu dute: «o pasan por el aro que propone el PSOE, o a la calle».

Hauxe baita, Gasteizko mo-roien leialkeriaz harroturik, Madrileko gobernuak guretzat asmatu duen taktika berria. «Operación Soto» barra-barra. Kalera, eta kitto. Abertzaleen haserreak? Pasa egingo zaie. Lasai.

UPV-en «amen» esango ez duten «revoltoso» horiek, kanpora! Horietxek baitira aspaldidanik Euskal Herriko Unibertsitatea berderatzen saiatzen diren berberak.

«Hordago» hau botatzen gauza bat eman du segurutzat Recalde-Barberá bikote jatorrak: UPV osoak, are Euskal Herriak berak, txintik esan gabe irentsiko duela Madrilin inposaketa hau.

Baina honetan, geroak erranen, nahastu egin dira.

TXILLARDEGI